

MATERIALISMO HISTERIKOA

Zer ospatua



UXUE APAOLAZA LARREA

Jende atsegina nuen aurrean irakurle klub guztietan. Ez aberatsak. Langile-klasekoak zirenaren kontzientziadunak, klase ertaina izan arren. Ziur, egunero-koan nahikoa buruhausterekin. Eta nik lau minutu baino ez nituen behar izan *kapitalismoa* esateko, apokalipsia iragartzeko. *Zenezesidade*. Ez zuten merezi.


Eta zuei ere zer. Beti haserretik. Beti ezintasunen batetik. Eta orain ere, pentsatzen hasita, esango nuke, seguru, ez dagoela ihesbiderik. Ekonomian, ingurumenean, gerra kontuetan... Kontsumo gaitasuna eskubide bakar, miope ekologikoak, aberatsak, independizatuta, beren kutsatzeko gaitasun infinituaz, urez gainezka. Gerra kontuetan ere, ez al gara gerra bezperako ukrainiar klase ertain bat gehiago. Eraikitako txikia egun batetik bestera galtzeko zorian.

Ez duzue merezi. Nik ere ez. Batez ere, irtenbiderik ikusten ez badugu. Ikusten dugun irtenbide bakarrak eskatuko lukeen indarkeria dosirik ere lortu ezin badugu. Indarkeria une horretan gure taldekoek bortxatuko gintuzketelako.

Baina merezi dugu tragediaren bezperan eguzki-be-rotan pintxo bat jatea. Ez dakit patata-tortilla bat *jamon-yorktagaztakin*, mosto batekin (Martiniak ez daukagun egun osoa eskatzen duenez). Agian, Arrularen liburuko lehen ipuina dastatuz. Ipuina bukatu. Ingurura begiratu. Hasperen egin. Tragediari aurre egiteko heliozko puxika bihurtu. Errekor badaezpada ere. Baina arin. Zerbait ospatu. Ospatzeko zerbait aurkitu. Beti. ●

EZ HANKA EZ BURU

ESATEN DUTENEZ,
HAUTESKUNDE GARAIAN,
POLITIKO BATEK
EUSKAL HERRI OSOA
ZEHARKA DEZAKE
MEMORIAGUNETIK
MEMORIAGUNERA
SALTO EGINEZ!



AOR

Presoak

Espainiako Epaitegi Gorenak Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren aurkako epaia berrikusi ostean espetxeratzeko agindua jaso zezaketela-eta, ANkerkeria Stop lelopean mobilizazioak egin zituzten Gasteizen, Amurrioren eta Agurainen, bi gazte arabarrei babesa emateko.

Erraustegia

Plastic Energy enpresak Zumarragan hondakin plastikoen birziklatze kimikorako instalazioa jartzeko asmoa "kezka handiz" ikusi du Urretxu-Zumarraga Bizi! plataformak. Azpimarratu du pirolisiak osasunarentzat kaltegarriak diren kutsatzaile kimikoak askatzen dituela.

Literatura

Arnaut Oihenarten poema berriak aurkitu dituzte. Gidor Bilbao EHUko ikerlariak Grenobleko liburutegiko ale batean *Cobla Berria* liburuaren ale bat topatu du, eta Baionako liburutegikoak baino lau orri gehiago ditu. Bertan daude orain arte ezagutzen ez genituen ahapaldi eta poema berriak.